



Arreba **ikusi**, eta irribarre
goxo batez **agurtu** zuen.

Arreba **ikusi** zuen, eta
irribarre goxo batez
agurtu.



Bi jokabide ageri dira tradizioan, juntaduraz elkarturiko esaldietan aditz laguntzailea isiltzean:

1. Lehenengo juntagaian ezabatzea aditz laguntzailea
2. Bigarren juntagaian ezabatzea aditz laguntzailea



1. Lehenengo juntagaian ezabatzea aditz laguntzailea.

Mendebaldeko tradizioan gertatzen da hori, batez ere; lehen juntagaiko aditz nagusiak partizipioaren forma hartzen du ia beti halakoetan.

- *Arridu-ko etxagun gaztea lagun harturik, barriro **etorri**, eta aitari hauxe **esan eutsan**.*

Errose Bustintze, *Euskalerriko ipuñak*, 1950-52

- *Ez da, bada, Eleizea, jaiak **imini** eta **kenduten dituzana**?*

Andres Iturzaeta, *Ikasbide kristinaukorraren...*, 1899

- *Zelan edo halan (...) jakiten dabe haxe mutiko zolia dala. Bere bila **joan** eta **ekarten dabe**.*

«Kirikiño», *Bigarrenengo abarrak*, 1930



Zernahi gisaz, ekialdeko tradizioan ere ageri dira halako adibideak:

- Jesukristo gure Jauna lurraren gainean bizi zelarik, maiz Jerusalemen **ikus**i eta **entzun** zuten.

«Zaldubi», *Eskualdun peleginaren bidaltzailea*, 1877

- Kuskuan **sartu** eta egun laburrik barnean, harrari **gogortzen ohi** zaio larrua.

Arnaud Abbadie, *Laborarier*, 1887-1903

- Nere esnea **saldu** eta harrek eman dirutik / Aroltze dozena zenbait **erosiko ditut** nik.

Martin Goihetxe, *Fableak edo Alegiak*, 1852



2. Bigarren juntagaian ezabatzea aditz laguntzailea.

Ekialdeko tradizioan agertzen dira, nagusiki, bigarren juntagaiko laguntzailerik gabeak. Aspektu-marka bi aditzetan errepikatzea da joera nagusia:

- *Badakit anitzek miretsiko duela eta **edirenen** arrotz eta estrainio, ni lan honi lotzea.*

Axular, *Gero*, 1643.

- *Pettanek (...) tisana **edaten du** eta, Jainkoaren lorian, **hurrupatzen**, azukre hondarrak eta oro koilararekin **biltzen dituela eta milikatzen.***

Jean Barbier, *Supazter xokoan*, 1924.



Mendebaldeko tradizioan aspektu-marka galtzea da joera, halakoetan:

- *Izadiko bizidunen ezaguera eban Nikanor-ek, eta beragaz eroaten zituan mutikoei irakasten eutsezan gorabeherak, eta begien aurrean **ipini** piztia bakoitzaren zertzeladak bizi-biziro.*

Eusebio Erkiaga, *Batetik bestera*, 1962.



Erabilerak erabilera, EIMAKo Aholku Batzordearen estilo-liburuak hauxe gomendatzen du:

Aditz laguntzailea isiltzean, aspektua berdindu

“Bi perpaus juntatzean bigarreneko aditz laguntzailea isiltzen bada, perpaus nagusiari dagokion aspektu-marka gordetzea hobesten dugu.”

Patxi Petirena (2011): *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*.
 Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.





Gomendio horren haritik, hona adibide batzuk:

- Irail inguruan **migratzen** dute enarek, eta martxoaren hasieran **itzultzen**.
- Berrikuntza teknologikoek kostuak **murrizten** dituzte, eta produktibitatea **handitzen**.
- Ekainaren 29an **hasiko** da Frantziako Tourra, eta uztailaren 21ean **amaituko**.
- Heriotza-tasa **murriztuko** da, eta populazioa **haziko**.



Sakontzeko:

Amundarain, Iñaki (1998): "Aditz laguntzailearen elipsia" in *Juntadura eta elipsia euskaraz*, 173-206.
[Doktore-tesia]

[Linean: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/inaki_Amundarain_TESI.pdf]